Olerki sarien ostean, 2014ko Euskera Sariak banatu ziran. Izaskun Uriagereka alkateak esan eban lez, aurtengo sariaren bidez merkataritza arloan euskeraren erabilera pausu bat gehiago emoteko prest dagozan merkataritzako lokalei emon jaken saria. Batzuk aurrerago dagoz beste batzuk baino, baina bide horretan egoteko gogoa eta ahalegina saritu gura izan dira. Horrenbestez, "Hemen euskeraz" kanpainan izena emon daben 37 lokalei banatu jaken saria, aurtengoan pegatina bat, Udalak sari modura emon eta eurentzat konpromiso bihurtuko dana. Dana dala, hemendik gitxirako teknikarien bisita jasoko dabela gogorarazo jaken, euren egoeraren barri sakonago aztertzeko eta dagozan baliabideen barri emoteko.

Urtero lez, aldarrakapen eta sarien bueltan ezeze, Santos Intxausti Musika Eskolako trikitilariei eta dantzariei esker, ospakizun-giroan eta lagunarte ederrean burutu zan ekitaldia.

Zorionak, ba, irabazleei.

*Irabazleen olerkiak irakurteko:
www.mungia.org

Mungiako ahozko ondarea jagon eta zabalduz

Urtarrilaren 15ean aurkeztuko ditu Mungiako Udalak Labayru Ikastegiaren laguntzagaz egindako "Mungian zaharrak barri" izeneko umeentzako unidade didaktikoak (web-orri eta liburu formatuan). 0-8 urte bitarteko umeei zuzendutako unidade didaktikootan ume-kantak, esakerak, ipuinak, ohiturak, hau da, gure herriaren kulturaren eta bizimoduaren ganeko informazio zabala topauko dabe umEEK. Materiala didaktikoa ezeze ludikoa bere izango da, guraso zein irakasleentzat sano aproposa eta baliagarria, eskolako curriculumagaz bat datorrena ganera.

Orain dala hamarkada batzuk arte gure aitita-amamek, gurasoek eta ingurukoek ahoz aho transmititzen euskuezan euskal tradizinoko ezagupen guzti horreek. Gaur egun, osteria, gatxagoa da geurea dan kultur-ate horri eustea. Halanda bere, geure izakerea eta nortasuna gorde gura badoguz, ezinbestekoa da ume-umetan jasoten dogun hori jagotea eta aurrerantzean bere ahoz aho zabaltzea.

Helburu horixe gogoan dala argitaratu doguz unidade didaktiko honeek. Umeeik herriko kultur tradizinoa geure ahotik –guraso, irakasle zein ingurukoek ahotik– jaso eta gozatu daien. Uste dogun baino ondare zabalagoa (ume-kantak, esakerak, ipuinak, ohiturak) dauagu mungiarrok. Askorentzat material barria izango da, beste askorentzat, barriz, ez; baina, seguru gagoz, buruko bazterren baten gordeta lotu jakuzan hainbat eta hainbat berba, ezagupen eta oroitzapen ekarriko deuskuezala gogora danoi. Izan bere, umeentzat bai baina helduontzat bere bada material hau.



Aspaldi hasitako beharra dogu esku artean dauagun hau, hain zuzen 2011n eta 2012an egin zan bilketa etnografikoan oinarrituta dago. Gure kultur ondarea batza behar-beharrezkoa da, baina zabaltzea arebere beharrezkoagoa.

Material hau formatu bitan egin da, danok erraz eta erosoa

moldatzeko: web-orrian (<http://mungianzaharrakbarri.com>; material osoa) eta liburutxuetan (materialaren aukeraketa bat). Web-orrian sartuta, edonork erabili lei doan material hau. Liburutxuak, barriz, eskoletako irakasleei eta 3 urteko ume guztiei banatuko jakez; eta besteontzat Agirre Jauregian izango dira salgai 5 euroan.

Protegiendo y difundiendo el patrimonio oral de Mungia

El próximo 15 de enero el Ayuntamiento de Mungia presentará las unidades didácticas (en formato web y libritos) dirigidas a escolares de 0 a 8 años diseñadas en colaboración con el Instituto Labayru. Dichas unidades se han elaborado con el objetivo de asegurar la transmisión de la tradición oral vasca que antaño se transmitía a través de la familia y que en los últimos tiempos ha perdido parte de su difusión.

Así, las unidades didácticas incluyen nanas, refranes, cuentos o tradiciones mungiarra recogidas gracias a la recopilación etnográfica llevada a cabo en 2011 y 2012, y pretenden componer un material didáctico y lúdico con el que tanto niños y niñas como adultos puedan recordar o aprender el vasto patrimonio oral de nuestro entorno.

El material estará en dos formatos, página web (<http://mungianzaharrakbarri.com>) y libritos. El acceso al material de la web es gratuito, los libritos se repartirán gratuitamente entre los y las escolares de 3 años; los ademas podremos adquirirlos en Agirre Jauregia a un precio de 5 euros.

Gabonetan, jarduerak opari!



Gabonak dirala eta, Mungiako Udalak ekitaldi ugari antolatu dauer herriko hainbat alkarteren laguntzagaz. Hasteko, abenduaren 3an, urtero legez, Euskeraren Nazioarteko Eguna ospatu genduan Olalde Aretoan. Ekitaldi horretan, batetik, Euskera Saria eta, bestetik, Lauaxeta olerki Lehiaketaren Sariak emon ziran. Ospakizun ederra izan zan, poesía, musika, dantza eta giro onaz jantzia.

Beste alde batetik, abenduaren 7an, Mungiako Andra Mari gunean kandela eta farolen jaia ospatu genduan Mungiako Kolonbiarren Alkarteaen eskutik, arratsaldeko 19.30ean hasita. Horri esker, kultura eta ohitura kolonbiarrak apur bat hobeto ezagutzeko aukera izan genduan; bide batez, Gabonetako

apaingarrien argiak bere biztu ziran ekitaldi horretan.

Abenduaren 12an, Euskal Kanten ekitaldia antolatu dan Mugire Txokoan Euskal Kantuzaleen alkartearen laguntzagaz. Kantarien artean, ganera, mungiar bat bere izan genduan, Maitane Lopategi hain zuzen bere. Bide beretik, hilero-hilero lehenengo barikuan euskal kantak ikasi eta abesteko aukerea bere hortxe izan genduan, eta, gai horri lotuta, ezin ahaztu abenduaren 13an San Pedro eta Andra Mari elizan antolatu dan Gabon Kanten Lehiaketa, urtetik urtera mungiarren ahots eta musika ederrenetarikoak eskaintzen deuskuzan txapelketa, Gizarberri taldeari esker.

Hilaren 20an emonaldi berezi eta ikusgarriaz gozatzeko erea

izan dogu Olalde Aretoan: Asier Uriagereka nazioarteko dantzari mungiarren omenez egindako Dantza Gala ederra. 19.30ean hasi zan eta 68 dantzari baino gehiagoren esku eta oinetatik hainbat modalidatetako dantzak eskaini jakuz, dana dantzari mungiarri omenaldia egiteko helburuari lotuta. Hori osatzeko, abenduan zehar, Asier Uriagerekari buruzko erakusketa bat bere izan dogu ikusgai Torrebillola Kultur Etxeko erakusketa gelan.

Galearen egun berean hasita, lehenengoz antolatu da herrian Mungiako Artisau Feria. Mungialdeko 11 artisauk hartzu dabe parte bertan eta asteburu osoan egon da ikusgai mungiarrentzat eta bisitarientzat.



Merkatarien eskutik, bestalde, abenduaren 13an, goizeko 11.00etatik arrastiko 15.00etara bitartean, umeentzako gabonetako parkea prestatu zan. Parke horretan puzgarriak, tailerrak eta beste hainbat jarduera antolatu ebezan. Ezin dogu aitatu barik itxi Olentzeroren etxera datozen bisiatoriak herri erdigunera ekarteko martxan jarri eben txutxu trena, Izenadubatik Matxin plazara joan-otorriak egiten ibili zana. Umeek, plazara heltzen ziranean, ganera, PINa edo gabon parkea izan eben antolatuta, eguna jolasten bukatzeko bertan.

Abenduaren 19an bere merkatariek urtero-urtero antolatzen daben Gabonetako Galea izan genduan Andra Mari gunean gaueko zortzi t'edietatik aurrera. Bertan zozketak, sariak, Vaya Semanita-ko aktore ospetsu baten monologoa eta hainbeste sorpresaz beteriko gaua eskaini euskuen.

Abenduaren 14an Legardako aterpeetan Bitxikiak Bildumazaleen eskutik antolatu

dan Merkatu Txikia bere klasikoa bihurtu da gure egutegian. Bertan izan genduan hamaikatxu bilduma, aspaldiko materialak, objektu bitxiak eta abar luze bat ikusteko hitzordua; asko eta asko izan ziran hara batu ziran mungiarrak eta kanpotik etorritako bisiatoriak.

Abenduaren 13an, barriz, Txokolo elkartearren eskutik, Mihiluze lehiaketa antolatu dan urtero legez Olalden; urtetik urtera ume eta gazte gehiagoren parte-hartzea daukan ekitaldia da, euskararen erabilera, hizkuntzaren sustapena zein aisialdirako alternatiba ludiko eta didaktikoa indartzeko sortu dan txapelketa.

Hortik aurrera, abenduan zehar hamaika jardueratan parte hartzeko aukerea egongo da Mungian: 24an, zelan ez, Olentzero otorriko jaku arratsaldeko 16.30etik aurrera opariz beteta. Horren aurretek baina, Mari Domingik gutunak batuko ditu Izenaduba Basoan, abenduaren 13, 14, 20 eta 21ean, arratsaldero.

Abenduaren 26an, goizean, ipuin kontalariak egongo dira Olentzeroren Etxean umeentzat, eta 28ko arratsaldean, barriz, Olalde Aretoan "Txirri, Mirri eta Txiribiton" pailazozen emondaldia izango dogu, arratsaldeko 18.30etik aurrera. Amaitzeko, 30ean bere Olalden umeentzako beste ekintza bat izango dogu arratsaldean: Eriz Magoaren emonaldi ikusgarria.

Ganera, aurten irristaketa pista berreskuratu dogu, Legardako Ikastetxeko aterpean kokatu dana: 2014ko abenduaren 20tik 2015ko urtarrillaren 5era arte atea zabalkiz izango ditu, goizez (11.00etatik 13.30era bitartean) eta arratsaldez (17.00etatik 20.30era). Euro 2 ordaindu beharko dira ordu erdiko bueltea emoteko. Jarduera honek harrera ona izan dau beti ume zein nagusien artean eta aukera ezinhobea da oporetan ondo pasatzeko, kirola eginda ganera.

Urtea amaitzeko Jatako 3. igoera antolatu dau Andui Mendigoizale taldeak. Gabon



Zahar egunean Jatara egiten dan igoera horretan, Udaletxe aurretik urteten dabe helduek; umeek, barrilz, bederatzietan. Gero, behin tontorrean, urte zaharra danok batera agurtzeko, hamaiketakoa eta "brindisa" egingo da.

Gabonak modu ezinhobean amaitzeke, urtero lez, Errosko Jaia egingo da urtarrilaren 5eko



arratsaldean. Betiko moduan, bilduko dan diru guztia ekimen solidario bateri zuzenduta egongo da. Aurten "Ataxia de Friederich" gaixotasunaren ikerketarako da, hau da, Mungiako 6 urteko ume baten gaixotasun degeneratiboaren ikerketa bultzatzeko.

La navidad viene cargada de actividades a Mungia

Desde el Ayuntamiento de Mungia y en colaboración con diversas asociaciones del municipio se han organizado multitud de actividades y eventos con motivo de estas fiestas. Entre ellas, la gala del Día Internacional del Euskera, donde se premió a los comerciantes por su participación en la campaña Hemen euskeraz y se hizo entrega asimismo del premio de Lauaxeta Olerki Lehiaketa.

Asimismo, de la mano de la asociación colombiana de Mungia se celebró la fiesta de los farolillos y las velas en un acto en el que se encendieron las luces navideñas.

Además, tuvimos el evento en torno a las canciones populares vascas, el concurso de villancicos en la iglesia organizado por Gizaberri, y el día 20 la espectacular Gala de la Danza en homenaje a nuestro bailarín mungiarra más internacional Asier Uriagereka. Ese mismo día se inauguró la feria de artesanía local en la que participaron artesanos de nuestra comarca.

Por otra parte, la Asociación de Comerciantes y Hosteleros organizó un parque infantil de Navidad en el que entre otras actividades las niñas y niños pudieron montar en un tren txu-txu y además, el día 19 celebraron su tradicional gala del Comercio en Andra Mari.

El día 14 de diciembre tuvimos el clásico merkatu txikia de la mano de Bitxikiak y el concurso Mihiluze gracias a Txokolo Kultur Alkartea.

Y el día 24, como no puede ser de otra manera, llegará Olentzero cargado de regalos. Antes, Mari Domingi recogerá las cartas los días 13, 14, 20 y 21 por la tarde. El 26 de diciembre habrá cuentacuentos, magia en Olalde de las manos del mago Eriz el 28 y el día 30 llegarán a Mungia Txirri, Mirri eta Txiribiton.

Además, este año recuperamos la pista de patinaje de hielo en la pista cubierta de Legarda, que permanecerá abierta del 20 de diciembre al 5 de enero.

Bildumen erakusketa aretoa inauguratuko da urtarilean

Bitxikiak expondrá sus colecciones en el centro de Mungia

El Ayuntamiento inaugurará en enero un espacio en Aita Arrupe 1 como sala de exposiciones permanente que será gestionada por la asociación local de coleccionistas Bitxikiak, asociación que participa de modo activo en la vida social de Mungia tomando parte en diversos eventos que se organizan a lo largo del año., como la feria del coleccionismo que se celebra en primavera o los populares mercados de verano e invierno a donde acuden miles de personas en cada edición. A cambio de este servicio, utilizarán el local como lugar de reunión de la asociación durante un periodo de 4 años.

En el local se realizarán exposiciones de la asociación o de otros coleccionistas y asociaciones, y estará abierto al público al menos tres tardes por semana.

Zemendiaren 28ko Ohiko Bilkuraren onartu eta gero, Bitxikiak bildumazleen alkarteak lokal barri bat dauka Gaztegunearen ondoan, hau da, Aita Arrupe 1ean, plazan; eta urtarilean inauguratuko da. Herriaren erdigunean dago kokatuta eta espacio honetan batzarrak eta erakusketak antolatuko dabez; horren ganera, biltegi modura bere erabili ahal izango dabe.

Bitxikiak Bildumazleen Alkarteak sortu zanetik hona urtero-urtero antolatu dau udabarrian Bildumazleen Feria Mungian. Horren ganera, bai udan eta bai Gabonetan hainbeste lagun ekarten dauen Merkatu Txikia bere antolatzen dabe. Eta ezin da esan barik itxi alkarte honek herriko beste hainbat ekimenetan bere hartzen duela parte, Lore jokoetan, kasurako.

Aurten Bildumazleen XII. Feria antolatu dabe eta milaka lagun batu zan bertara. 200 postu baino gehiago jarri ebezan ferian eta, ganera, herriko 35 dendatan bere bildumazketa jarri ebezan herritarrek ikusi ahal izateko. Esan behar da feria hau erreferente bihurtu dala eta bildumazaleak hainbat eta hainbat leku desbardinatik datorzela udabarriko feria honetara.

Bitxikiak alkarteak parte-harzte aktiboa dauka Mungiako eguneroko bizimoduan. Horregaitik guztiagaitik, aitutatuko lokal hori eurei lagatzea erabagi eban Udalak (lagapena 4 urtetarako izango da). Bide horretan, hitzartu egin da Alkarteagaz erakusketa gela urte osoan egongo dirala erakusketak jarrita. Horregaz batera, alkarteak konpromisoa hartu dau astean gitxienez hiru egunetan zabalik egongo dala herritarentzat eta horrek Mungian beste zerbitzu bat eskainiko dala esan gura dau. Halanda bere, aitatu behar da lokala itxita dagoanean bere, badagoala bertan dagozan erakusketak kanpotik ikusteko erea; izan bere, lokalaren kristalera sano handia da. Horren truke, alkarteak euren batzarrak eta ikastaroak antolatzeko erabiliko dau lokala.

Erakusketa barri bat jartzen daben bakotxeen, gitxienetik astean hiru arratsaldetan egongo da aretoa herritarentzat zabalik eta, erakusketak ikusteaz ganera, aukera egongo da alkarteko kideren baten eskutik beharrezko azalpenak hartzeko.

Alkarteak aurreikusten dauzen erakusketen plangintza aurkeztuko deutso urtero udalari, hau da, aurreikusitako bildumak eta ekitaldiak zehaztuko ditu.



Horrez gain, alkarta bere bildumak herriko ekitaldietan erabilteko prest dago, eta mungiarrentzako tailerrak antolatzeko bere prest agertu dira: liburuen edo altzarien zaharbarritzea, adibidez. Bide beretik, herriko beste alkarteei bere aukera emongo jake lokal horretan euren erakusketak jartzeko, eta, horretara, pasa dan merkatu txikian Errugbi taldekoak, Mungia STkoak edo Diz-diz alkartekoek egin daben moduan, orain lokal barrian egin ahal izango dabe.

Labur esanda, lokal horrek erabilera desbardinak izango ditu: erakusketa aretoa eta alkarta batzartzeko eta sortzen dabezan gauzen biltzeko lekua (urreko urteetan Lore-jokoek egunerako egindako taberna, bolatokia,...).

Erakusketa prestatzeko euren bilduma propioak erabiliko dabez, baita euren ezagunenak bere. Ganera, bertara joan eta norberaren bilduma erakustea proposatzeko erea bere badago.

Hori guztia gitxi balitz, Mungiako herria promozionatzeko produktuak bere salgai izango dabez bertan. Alkarteak berak 12 ferietarako sortutakoak hain zuzen bere (markapaginak, pinak, eta abar).

Horretara, ekimen honen bitartez, Mungia bisitan datozanenei bere beste alternatiba kultural eta ludiko bat eskainiko deutsegu.



Mungiako nazioarteko abesbatzen XIV. topagunea eta santa zezilia ospatzeko kontzertua

Aurten bere eta urtero legez, zemendian zehar Nazioarteko Abesbatzen Topaguneaz gozatzeko aukera izan dogu Andra Mari eta San Pedro parrokiaren. Ohi danez, Europako talderik garrantzitsuenetarikoak batu dira gure J.M. Arregi abesbatzarekin batera.

Oraingoan Errumaniatik etorri jakuz Anatoly Vocal Quintet-eko ahotsak Andrada Muresan jaunaren zuzendaritzapean. Entzuleek itzel gozatu eben euron ekitaldiagaz eta merezitako txaloak jaso ebezan. Ganera, Anatoly Vocal Quintet-ek gau horretan Tolosako Nazioarteko abesbatzen txapelketa ospetsuan musika profanoan 2. saria irabazi eben.

Topaketaren bigarren asteburuan, zemendiaren 8an, Laredoko Coral Salvéren emonaldia izan gendun entzungai, Jose Luis Ocejoren zuzendaritzapean. Diskografia zabaleko talde hau hainbat sari jasotakoa da. Zuzendariak bere aldetik esker ona erakutsi euskun Mungiara etorteko gonbidapenagaitik eta Laredokoek kontzertzut ederra eskaini euskuen, ordainetan mungiarren txalo partidea jaso eben.

Azkenik, Santa Zezili egunean, zemendiak 22an, gure herriko musika taldeak izan genduzan: Gure Ametsa Txistulari Taldea, Alaiaik Mungialdeko Soinulari Alkarte, MMUK (Santos Instxausti Musika Eskolako umeen korua), Tantak Korala eta J.M. Arregi Abesbatza. Emonaldi aparta eskaini eben guztiek, Mungiako taldeek barriro bere herrian musikarako daukagun zaletasuna



eta maila parebakoa erakutsi eben.

Aurten ganera, sorpresa modura, Gure Ametsa txistulari taldekoak Amilotx dantza taldeko dantzari batzukaz batera agertu jakuzan

eta "Kaxarranka" jantza ikusgarria jantzatu eben Juan XXIII Plazan.

Eguraldi epelak eta musikari zein jantzarien beroak gau benetan ahaztezina ekarri eben Mungiara.

XIV Encuentro Internacional de Coros

Un año más y como viene siendo habitual en noviembre celebramos el Encuentro de Masas Corales en la parroquia de San Pedro y Santa María. El encuentro contó con la actuación de las mejores voces de Mungia englobadas en J.M. Arregi así como diversos coros de reconocido nivel internacional.

Disfrutamos con la actuación del coro rumano Anatoly Vocal Quintet, bajo la batuta del director Andrada Muresan, quienes recibieron, además del aplauso del público mungiarra, el segundo premio de música profana en el famoso Concurso de Coros Internacional de Tolosa.

El 8 de noviembre recibimos a la Coral Salvé de Laredo, dirigido por José Luis Ocejo, quien agradeció la invitación de nuestro municipio, ofreciendo un recital que hizo las delicias de los allí presentes.

Finalmente, el día de Santa Cecilia Gure Ametsa Txistulari Taldea, Alaiaik Mungialdeko Soinulari Alkarte, MMUK (Santos Instxausti Musika Eskolako umeen korua), Tantak Korala y J.M. Arregi Abesbatza nos deleitaron con su música y su buen hacer. Amilotx Dantza taldea y Gure ametsa sorprendieron a todos ofreciendo el baile de Kaxarranka, todo un espectáculo que arrancó los aplausos y ovación del público.

Mungiako Gazteantzako enplegu plana aurrerantz doa



Gazteantzako enplegu planak aurrera jarraitzen dau. Zemandian hainbat prestakuntza jarduera abiatu dira, hain zuen bere, ondoko hiru ikastaroak: **Salmenta Teknikak eta Ingeles Komertziala (160 ordu), Kalidadea, ingurumena, segurtasuna eta osasuna (120 ordu) eta Hezkuntzan Oinarritutako IKTak (120 ordu, euskera hutsean).** Ikastarootan dabilzan gazteak oraindik bete betean dagoz sartuta prestakuntza-fasean eta halan jarraituko dabe ikastaroak amaitu arte (abenduaren 18tik urtarriaren 9ra bitartean amaituko dira hirurak).i

Behin prestakuntza-ikastaroak amaitu ostean, **enpresetan praktikak** egiteari ekingo deutsee. Gutxi gorabehera lau hilabeko praktikak izango dira (300 ordu), egunean **4 ordukoak**. Ordu horrek ordaindu egingo jakez Eskualdeko Udalek eta Bizkaiko Foru Aldundiak egindako Planaren aurrekontutik, eta Lanbideren babes juridikoa izango dabe. Era honetako praktikak garatzeko prest dagozan enpresakaz

hartu-emonak sortu ahal izateko, Udalak batzar bat antolatu eban hilaren 15ean Mugire Txokoan. Batzar horretan herriko hainbat enpresatako ordezkarik hartu eben parte, gazteei aukera interesgarri hori eskaintzeko prest. Duda barik, oso aukera ona da gazteak lan-munduagaz lehenengo hartu-emonak sortzeko eta mundu horretan sartzeko. Eskualdeko

En marcha con el plan de empleo juvenil

39 Jóvenes de Mungialdea están realizando diferentes cursos de formación dentro del Plan de Empleo Juvenil de nuestro municipio. Estos cursos son los siguientes:

- Técnicas de Venta e inglés Comercial.
- Calidad, Medio ambiente, seguridad y salud.
- TICs basados en Educación (impartido en euskera).

Una vez finalizado el periodo de formación estos jóvenes munguarras realizarán prácticas en empresas durante un total de cuatro meses.

ikastetxeek bere interesa erakutsi dabe Irakaskuntzari aplikatutako Informazinoren eta Komunikazioaren Teknologiak izeneko ikastaroan parte hartu daben gazteak praktiketan hartzeko.

Programa honetan parte hartu daben gazte guztiek (guztira 39), 18 eta 30 urte bitartekoak, erdi edo goi mailako titulazinoa daukie eta euren profila era honetako ikastaroak egiteko egokia dalako aukeratu dabez.

Ondoko honeek izan dira eurok hautatzeko erabili diran irizpideak: Curriculum Vitae, euskera eta ingles maila, irakaskuntzako edo merkataritzako esperientzia, ikastaroagaz lotutako prestakuntza eta beste gaitasun batzuk. Irizpide horreen ganera, beste ezaugarri batzuk bere hartu dira kontuan, besteak beste: parte-hartzaileen artean gizon eta andrazkoen kopurua orekatuta egotea, gizarteratze helburuak izatea, eta azkenik, programan parte hartzen daben eskualdeko zortzi herrietako gazteak egotea.



MUNGIA

GARRAOA | TRANSPORTE ■■■

Gaueko autobus-zerbitzu barria



Servicio nocturno de autobús



Gaueko autobus-zerbitzua barria

Abenduaren 14tik gora zerbitzua hobetu eta ordutegia zabaldu egindoa

Bilbao-Mungia linean. Gaueko zerbitzua eskainiko dau bariku eta zapatuetan: 01:30era arte urtengo dabe autobusek Bilbotik, eta 01:00era arte Mungiatik, 60 minuturik 60 minutura.

Mediante Orden Foral de 18 de julio se aprobó el Proyecto del servicio de transporte público regular permanente de la concesión correspondiente a nuestra comarca, el cual será implementado en la práctica a partir del 14 de diciembre, fecha en la que se ponen en marcha las nuevas concesiones, las cuales contemplan diversos cambios en líneas, horarios, recorridos, etc.

Aunque la implantación será este mes, fue en junio de 2012 cuando el Ayuntamiento presentó una serie de alegaciones al anteproyecto que, en aquél momento barajaba la Diputación Foral para el establecimiento de los servicios de transporte público regular para las distintas zonas del Territorio Histórico de Bizkaia, entre ellas la correspondiente a Txorierri-Mungialdea.

De entre dichas alegaciones, algunas han sido atendidas y van a verse reflejadas en la mejora del servicio y ampliación de horarios de las que podremos disfrutar próximamente. Así, en la línea **Bilbao-Mungia, por autovía**, se incorporan los servicios nocturnos, los viernes y sábados, hasta la 01:30 horas de la madrugada para salidas desde Bilbao y hasta la 1:00 desde Mungia, cada 60 minutos.

Aunque el horario ofrecido no cubre toda la franja horaria solicitada, supone un gran avance

respecto de la situación actual en la que el último autobús sale de Bilbao a las 22:30 horas. Por ello, entendemos que si bien no responde por entero a nuestra demanda, si paliá en parte una situación insostenible de falta de transporte público en días y horas en las que la movilidad de muchos mungiarra requiere de dicho servicio.

Otra línea que deberá ser mejorada es la que nos conecta con la localidad de Sopela, pues la próxima apertura del Hospital de Urduliz requerirá de un incremento de las frecuencias horarias y mejora de las rutas para poder atender el incremento de demanda de transporte público que dicha infraestructura sanitaria va a provocar en esa línea; cuestión que también fue planteada en su momento en las alegaciones citadas, pero ante la que de momento no se ha contemplado ninguna variación.

Informazino-panelak barriztuten

Udalak datozen asteetan ekingo deutso herrian jarrita dagozan sei informazino-panel aldatzeari. Panel horreek alkarteek eta herritarrek erabilten dabez, euren ekintzen eta eskaintzen ganeko informazioa emoteko.

Era horretako 20tik gora panel dagoz herri osoan zehar, baina ez dira danak era batera aldatuko, apurka-apurka egingo da, arrazoi ekonomikoengaitik. Orain egoerak txarrenean dagozanak aldatuko dira.

Bai alkarteek eta bai herritarrek asko erabilten dabez panel horreek euren ekintzen eta ekitaldien barri emoteko, ganera, sano baliagarriak dira herriko kaleetako hormak garbi eukiteko, eta informazioa bera bere itxura ordenatugoa eta

erakargarriagoan eskaintzen dabe.

Panel horreez aparte, uriguneko sarreretan dagozan kartelak barriztu egingo dira, denporearen

porasuz nahiko egoera txarrean lotu dira eta. Diseinu barriean gure herriaren erakusgarri edo sinbolo diran beste elementu batzuk bere agertuko dira.



legarda futbol zelaiko tabernea eskualdeko pertsona euskaldun batek kudeatuko dau

Joan dan zemendian Legarda futbol zelaiko taberna kudeatzeko kontratua sinatu zan, Rosario Lauzirikagaz hain zuen bere. Urte birako izango da eta urtero ordainduko dauan kanona 2.500



eurokoa izango da.

Futbol zelaiko tabernea kirolariek eta euren familiekin eskatzen daben zerbitzua da, batez bere partidu egunetan.

Taberna honen gitxieneko ordutegia honako hau izango da:

- Martitzenetik egunera: 16.00etatik 20.00etara
- Barikuetan: 15.00etatik 20.00etara
- Zapatu-domeketan: 9:0etatik 21.00etara


Eskualdeko pertsona batek kudeatzeak poztu egiten gaitu. Euskalduna da eta prest dago zerbitzua euskeraz emoteko. "Futbola euskeraz" proiektuagaz batera, tabernan euskaldun bat eukiteak bere euskeraren erabilera indartzen lagunduko deuskula uste dogu. Holantxe izan daitela.



MUNGIA

KIROLAK | DEPORTES ■■■
 Nuevas instalaciones y servicios


Nuevas instalaciones y servicios deportivos



Tras diversos contactos con asociaciones y personal técnico deportivo, y teniendo en cuenta las peticiones que, a lo largo de los últimos años han realizado distintas personas usuarias del polideportivo, el equipo de gobierno municipal ha considerado conveniente realizar una propuesta para mejorar las instalaciones y servicios deportivos que actualmente se ofrecen desde el Polideportivo municipal.

La propuesta se resume en las siguientes actuaciones:

- 1. Ampliación del actual gimnasio, duplicando su superficie hasta los 300 m².**
- 2. Creación de una plataforma que mejore la visibilidad y accesibilidad del graderío de la pista polivalente, posibilitando el acceso para personas con movilidad reducida a la zona central del graderío.**

- 3. Reubicación y ampliación de los baños situados en la planta primera.**

Estas tres actuaciones tendrían un presupuesto conjunto estimado de 195.070 €.


- 4. Reubicación del despacho de dirección y creación de dos salas de reuniones para clubs y asociaciones deportivas, así como una sala de formación en la planta baja, con un coste de 112.105 €.**

- 5. Creación de tres pistas de padel cubiertas y con iluminación.: 56.253 €.**

- 6. Creación de una pista de tenis, una pista de baloncesto y una pista de fútbol sala**

en el nuevo espacio exterior creado frente al polideportivo, incluyendo la nivelación y asentamiento de terrenos: 209.216 €.

- 7. Remodelación de la cubierta de los frontones de Larreta: coste aproximado 335.000 €.** La nueva estructura sería de madera, con un sistema de viga curva que llegue hasta el suelo, haciendo las funciones de cubierta y fachada. La cubierta sería translúcida en un 30%, para posibilitar el uso diurno sin luz artificial. El 60 % de esta cantidad sería repercutible al Departamento de Educación del Gobierno Vasco, en virtud de un convenio a firmar entre dicha institución y el Ayuntamiento, mediante el cual, el Ayuntamiento cedería la parte del frontón abierto actualmente a dicho departamento a fin de que éste habilite en la misma un gimnasio para uso del Colegio San Pedro en horario escolar, pudiendo utilizar las instalaciones el municipio fuera de dicho horario. El frontón actualmente cubierto seguiría siendo de titularidad municipal.






Además de todo ello, el presupuesto del año 2015 contempla ya una partida destinada a la creación de un **nuevo skatepark** en la zona de Larreta. Con el traslado de las pistas de su actual emplazamiento, además de renovar las instalaciones necesarias para la práctica de este deporte, se daría respuesta a una petición largamente demandada por el colegio San Pedro y que posibilitaría adecuar una zona escolar más amplia para este importante centro educativo, evitando también las actuales interferencias en cuanto a horarios en los que poder practicar ambos usos.

Dentro de los limitados recursos económicos con los que cuenta el Ayuntamiento en estos momentos para poder acometer inversiones de mayor envergadura, con estas

reformas se pretende ofrecer una respuesta a buena parte de las demandas planteadas por los y las mungiarras en los últimos tiempos respecto de algunas carencias detectadas en el funcionamiento y disponibilidad de diferentes infraestructuras y servicios deportivos.

Sin embargo, y conocedores de que también otros equipamientos son susceptibles de mejora y/o ampliación, los y las mungiarras que así lo deseen, podrán aportar sus opiniones y/o sugerencias hasta el día 24 de diciembre

en los dos buzones habilitados en la Sala Konkordia-Alkartasuna del Ayuntamiento (donde también está la exposición del Plan General de Ordenación Urbana) y en el Polideportivo municipal.



Kirol instalazino eta zerbitzu barriak

Erabiltzaile agurgarria:

Panel honeetan udal gobernu-taldeak **gaur egun Udal Kirolegiak eskaintzen dituan kirol instalazinoak eta zerbitzuak hobetzeko** egiten dauen proposamena ikusteko aukerea daukazu.

Ondoko lanhoneek osatzen dabe proposamena:

- 1.- **Gaur egungo gimnasioa handitzea, azalera bikoitztuta.**
- 2.- **Erabilera anitzeko pistako harmailek daukien irisgarritasuna eta ikuspena hobetzeko, plataforma bat egitea.**
Horretara, mobiduteko arazoak daukiezan pertsonek bere errazago heldu ahal izango dira harmailetara.
- 3.- Lehengo pisuan dagozan komunak lekuz aldatu eta handiago egitea.
- 4.- Zuzendaritza-bulegoak lekuz aldatzea, klubek eta kirol alkarteek batzarrak egiteko batzar-gela bat sortzea, eta beheko pisuan ikastaroetarako gela bat egitea.
- 5.- Hiru padel-pista sortzea, estaliak eta iluminaziondunak.
- 6.- **Tenis-pista bat, saskilobaloitako pista bat eta areto-futbolera pista bat egitea kirolegiaren aurreko aldean sortuko dan kanpoko gune barrian.**
- 7.- Larretako frontoien estalkia konpontzea.

Horren guztiaren ganera, 2015erako aurrekontuan Larreta inguruan skatepart barria egiteko partida bat aurreikusi da.

Gaur egun Udalak tamaina handiagoko inbertsinoak egiteko baliabide ekonomiko mugatuak daukazala kontuan hartuta, deskribatutako erreforma-lan horren bidez mungiarrak azken urteotan kirol arloan izan dabezan beharrizanetako askori erantzun egokia eskaini ahal izango deutsegula uste dogu, hain zuzen bere, eguneroakoan sortu diran funtzionamendu arazoei eta instalazino eta kirol zerbitzuen disponibilidade eskasari.



MUNGIA

EGUTEGIA | CALENDARIO ■■■
2015eko egutegia

Mungiak kirolez jantzi dau 2015eko egutegia



Kirolerako zaletasun handia daukagu herrian eta hori ezagun da herrian daukagun kirol-talde, -alkarte eta -klubak zenbat diran ikusi ezkerro.

Hori dala eta, omenaldi txiki bat egin gura izan deutsegu kirolean bete-betean egunero inpliketan eta ahalegintzen diran lagun horreei guztiei. Euren denpora librearen zati handi bat gustukoien daben zaletasunari eskaintzen deutsien Mungiar horreei danei. Izañ bere, lan horren bidez balore positiboen zabalkunde lana egiten dabilz egunero, hau da, solidaridadea, integrazioa eta garapen personala sustatzen.

Mungiar horreek euren denpora librearen parte handi bat kirolerako zaletasunari indarra emoteari eskaintzen deutsie eta, ondorioz, herritarren osasun fisikoa eta mentala hobetzeari. Talde horreetan lanean dabilzanek egiten daben ahaleginak ez dauka neurirrik,

itzela da, eta kirola parajetu egiten deuskue ganerako guztoioi, geure zaletasun eta gaitasunak kontuan izanda.

Horregaitik guztiagaitik, 2015eko egutegia lagun horreei gure esker ona agertzeko modu bat da eta, bide batez, kirola sustatzeko ahalegin bat bere bada; izan bere, kirola praktikateak beti eta salbuespen barik dakarsku osasuna eta ongizatea neurri baten edo bestean.

Mungia se lanza a hacer deporte con su calendario 2015.

Somos un pueblo deportista y así se demuestra en la cantidad y calidad de clubs y asociaciones deportivas que tenemos en nuestro municipio.

Por ello hemos querido realizar un pequeño homenaje al esfuerzo que a diario, personas involucradas dedican al progreso de su deporte. Mungiaras que dedican una gran parte de su tiempo libre para disfrutar de su pasión. Personas que fomentan a diario valores positivos como son la solidaridad, la integración y el desarrollo personal. Vecinos y vecinas que sacrifican parte de su tiempo libre para inculcar esa afición por el deporte y mejorar con ello los niveles de salud física y mental de la población. En este punto, la importancia de la labor que personas de estos colectivos prestan es incommensurable, acercando la práctica deportiva a todas las personas en función de sus preferencias y capacidades.

Por ello, el calendario del año 2015 es un agradecimiento a esas personas y una reivindicación del deporte como fuente de salud y bienestar para todos y todas sin excepción.

ERDU ETA HARTU ZURE EGUTEGIA!! OPARIA DA

Abenduaren 29tik gora hartu zeinke Udaletxearen (Harrera Bulegoan)

VEN A POR TU CALENDARIO!! ES GRATIS

A partir del día 29 de diciembre en el Ayuntamiento (Harrera Bulegoa)

ASTELEHENETIK BARIKURA

Lunes a viernes

8.30 - 14.30

EGUEN ARRATSALDEETAN

Jueves tarde

16.30 - 19.30

ZAPATUETAN

Sábados

10.00 - 13.00

ARGITARATZAILEA:

MUNGIAKO UDALA: Elorduigoitia, 4 / 48100 Mungia <Bizkaia>
Tel. 94 674 12 12 / harrera@mungia.org / www.mungia.org

ALE KOPURUA: 7.000

LEGE GORDAILUA: BI-2224/2012

